



Arartekoaren 2024R-2692-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 14koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio berma dezala sei kidetik gorako familia ugariak gainerako guztien aukera berekin parte hartu ahal izatea babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa onartu zuen izapidetzeko. Kexan, herritarrak adierazi zuen ez zegoela ados Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek babes publikoko etxebizitzak alokairuan adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko eskaera ez onartzearekin.
2. Idazkian kexagileak azaldu zuen bere bizikidetza-unitatean zortzi kide daudela eta horietako sei bere kargura dauden adingabeak direla.

Halaber, oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako txostena aurkeztu zuen. Bertan, besteak beste, adierazten zen bizi diren merkatu askeko etxebizitzan 73 m²-ko azalera erabilgarria baino ez dagoela, eta honetara azaltzen zen etxeko egoera: *"hacinamiento"*.

Horrez gainera, txostenean honako hau adierazten zen: *"hay humedades y condensaciones en todos los habitáculos de la vivienda tanto en paredes como techos"*. Gainera, *"la cocina no tiene extractor de humos"* eta *"tampoco tiene calefacción"*.

Horregatik guztiagatik, oinarrizko gizarte zerbitzuek honako hau uste zuten: *"las condiciones de habitabilidad de la vivienda son deficientes y nada saludables para todos los miembros de una unidad familiar."*

Txostenean honako ondorio honetara iristen ziren: *"tres habitaciones de VPO de alquiler serían adecuadas y suficientes para la unidad familiar"*.

3. Kexagilea eta beraren bizikidetza-unitateko kideak etxebizitza babestuaren eskatzaile modura inskribatuta daude 2015etik.

Horrenbestez, eta ikusirik familia bizi den merkatu askeko etxebizitza ez dela egokia, 2023ko martxoaren 15ean kexagileak babes publikoko etxebizitzak alokairuan adjudikatzeko prozedura batean parte hartzeko eskaera formalizatu zuen.

2023ko maiatzaren 15ean Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek agindu zuen aurrean aipatutako prozedurarako onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak argitaratzeko. Kexagileari bidalitako komunikazioan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak adierazi zion aipatutako prozeduran lortutako puntuazioa honako hau zela:

- *"Logela 1: 16.
2 logela: 16.
3 logela: 23."*

Aurrean azaldutakoa gorabehera, Arabako Etxebizitza lurralde-ordezkariek erabaki zuen kexagileak prozeduran parte hartzeko aurkeztutako eskaera baztertzea, honako hau argudiatuta:



- *"Bizikidetzaren unitateko kide kopurua ez dator bat sustapen honetako etxebizitzaren ezaugarriekin."*

Nolanahi ere, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen erabakian hilabeteko epealdia, ebazpena argitaratu ondoko egunetik zenbatu beharrekoa, eman zitzaion kexagileari gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko.

4. 2023ko maiatzaren 22an, kexagilea Zuzenean-Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan zen eta, artatu zuten langileen oharrei jarraikiz, erreklamazioa aurkeztu zuen Arabako Etxebizitza lurralde-ordezkararen erabakiaren aurka, hau da, adjudikazio-prozeduran parte hartzen ez uztearen aurka.

Horretarako erabili zuen formularioaren izenburuan berariaz adierazten da helburua gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea dela.

Kexagileak bere idazkian adierazten zuenez, bizikidetzaren unitatean zortzi kide badaude ere, prest zegoen hiru logelako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko.

Erreklamazioa zertarako zen argi utzi nahian, Zuzenean-Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak honako adierazi zuen ziurtagirian:

- *"nº de expediente (...) interpone recurso de alzada por exclusión de admitidos promoción (...)."*

Beraz, kexagileak etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa daukan espedientearen zenbakia eman zuen, etxebizitzaren promozioa beraren erreferentziarekin identifikatu zuen eta errekurtsioa zer egintzaren aurka zen zehaztu zuen. Horren guztiaren helburua zen unitate administratibo egokiak Etxebizitza Sailburuordetzara bidaltzea gora jotzeko errekurtsioa eta horrela kexagilearen asmoa aztertu ahal izatea.

Aurrean azaldu dena gorabehera, 2023ko ekainaren 13an Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak komunikazio generikoa baino ez zuen bidali. Goiburuan *"Kontsulta, iradokizun edo erreklamazioaren erantzuna"* agertzen zen eta dokumentu osoan ez zegoen inolako sinadurarik. Horren bitartez Sailak babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretako kupoen berri eman zion.

Horregatik, Arartekoari aurkeztutako idazkian kexagileak esan zuen gora jotzeko errekurtsioari ez zitzaioela eman erantzun egokia.

Halaber, adierazi zuenez, bere bizikidetzaren unitatearekin ezin zuen parte hartu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eskaintzen dituen etxebizitza-sustapenetan.

Hain zuzen ere, beraren esanetan, etxebizitzaren egungo diseinua eta, beraz, etxebizitzak adjudikatzeko prozeduren antolamendua kontuan hartuta, bere familiak ez dauka aukerarik babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko, azken sustapenetan ez baita egon sei kideetik gorako familiek etxebizitza eskuratzeko modurik.

Azkenik, adierazi zuen berriki etxebizitza utzarazteko prozedura judiziala abiarazi zutela eta ikustaldia 2023ko azaroaren 7rako ipini zutela.





5. Azaldutako gertaerak ikusita, 2023ko urriaren 18an Arartekoak laguntza-eskaera bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailera.

Idazki hartan Arartekoak kexagileak deskribatutako egoeraren berri eman zuen, eta txosten batean azaltzeko zergatik erabaki zuen Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek kexagilea prozeduratik kanpo uztea.

Halaber, Arartekoak informazioa eskatu zuen azken urteetan sei kidetik gorako familiei etxebizitza eskuratzeko aukera ematen zieten babes ofizialeko etxebizitza-sustapenei buruz.

Gainera, Arartekoak esan zuen jakin nahi zuela zer gogoeta egin zuen eta zer egin zuen Sailak bermatzeko sei kidetik gorako familia ugarietako gainerako familia guztien aukera berekin parte hartu ahal izatea babes publikoko etxebizitzako adjudikatzeko prozeduretan.

Azkenik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion sailburuari. Horiek ez errepikatzearren, geroago azalduko dira.

6. Egindako informazio-eskaerari erantzunez, 2023ko azaroaren 16an erakunde honen erregistroan sartu zen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren kabinete-zuzendariaren erantzuna; Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak egindako txostena erantsita zeukan.

Laburbilduta, txostenean azaltzen zen zergatik ukatu zitzaion kexagileari prozeduran parte hartzea. Zehazki, honako hau adierazten zuen:

- *"...la unidad de convivencia de la que forma parte es de más de 6 miembros, incumpliendo así uno de los requisitos establecidos por la Orden de 14 de febrero de 2023, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, para poder participar en el procedimiento."*

Orobat, Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak honako hau adierazten zuen kexagileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioaz:

- *"El escrito presentado por (...) no identifica, ni siquiera de manera somera, el acto que recurre ni la razón de su impugnación."*

No se trata en ese caso de un error o ausencia de calificación del recurso, sino de una falta de identificación del acto recurrido, y de alegaciones de las que se pueda deducir su pretensión.

Dicho escrito fue tramitado como una queja/reclamación general sobre su inscripción en Etxebide y sobre los procedimientos de adjudicación."

Azkenik, sei kidetik gorako familia ugarietako babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan gainerako guztien aukera berekin parte hartu ahal izateko hausnarketei eta horretarako egindakoari dagokienez, txosten horretan honako hau baino ez zen adierazten:

- *"Se considera que la respuesta a la valoración general del departamento sobre la participación de las familias numerosas en las promociones de viviendas de protección pública y la información global sobre las promociones que, en los"*





últimos años, han permitido el acceso a familias compuestas por más de seis miembros, no compete a la Delegación Territorial de Álava.

En cualquier caso, se entiende que el departamento intenta adecuar el programa de viviendas de sus promociones a las necesidades de los demandantes de vivienda inscritos en Etxebide."

Gainera, txostenaren arabera, badakite 2020. urtean, sustapenetako batean, sei kide edo gehiagoko bizikidetzak-unitateek parte hartzea ahalbidetu zen, "3 eta 4 logelako etxebizitzak zeuden eta."

Nolanahi ere, ez Etxebizitza Sailburuordetzak ez Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ez diote horretaz ezer adierazi Arartekoari.

7. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira

Gogoerak

1. Familiak gizarte-eginkizun ugari betetzen ditu; horregatik, babes berezia merezi du, nazioarteko hainbat tresnak adierazten duten moduan, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (16.3 artikulua) eta Europako Gutun Sozialak (16. artikulua).

Gainera, errealitate kulturala ere bada, eta hainbat erataraz eratzten du gizartea. Beraz, ez dago familia-kontzeptu intenporala finkatzerik. Horrenbestez, ez genuke familiaz, singularrean, hitz egin behar, erakunde bakarra eta uniforme balitz bezala; aitzitik, errealitate honi ikuspegi pluralista batetik heldu behar genioke, eta familia-motez hitz egin behar genuke, gizataldeak hainbat familia-ereduren arabera antolatzen baitira.

Familiak, zalantzarik gabe, botere publiko guztien babes berezia behar du, pertsonen garapen osorako euskarri material eta afektiboa izateko eginkizun ezinbestekoa baitu, baita egiteko kuantitatibo eta kualitatibo bat ere, haurrei, adinekoei eta gaixotasunagatik edo mendekotasunagatik premia bereziak dituztenei arreta eman bezalako betetzen duena.

Familiaren konstituzio-oinarria Espainiako Konstituzioaren (hemendik aurrera EK) 39. artikuluan dago; horren arabera, botere publikoek: "familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzte".

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera EAE), EAEko Autonomia Estatutuaren (hemendik aurrera EAEAE) abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.39 artikuluan ezartzen denaren arabera, familien babesa EAEn eskumen eskusiboa da arlo hauetan: "Komunitatearen aurrerabidea. Emakume kondizioaren arazoa. Haur, gazte eta hirugarren adinekoren aldeko politika"

2. Azaldutakoarekin bat etorriz, Familiei laguntza emateko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen bitartez arreta berezia eman nahi zaio familia ugarien egoerari, gure gizartearen giza kapitalari zer-nolako ekarpena egiten dioten aintzat hartuta, eta baliabideak eta bitartekoak (edonolakoak) besteak baino gehiago beharko dituztela oinarri hartuta.





Hain zuzen ere, abenduaren 12ko 13/2008 Legeak honako hau ezartzen du berariaz 18. artikuluan:

- *“Oro har, bere etxebizitza-politikaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak tratamendu berezia emango die (...)familia ugariet”*

Tratamendu berezi hori argi ikusten da 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2 f) artikuluan (abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak aldatua), zeren eta familia ugariak etxebizitza-beharrizan berezia duten eskatzaileen edo bizikidetz-unitateen kategorian baitaude. Beraz, familia ugarien ezaugarri bereziak aintzatesten ditu, bai eta etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko zailtasunak dauzkatela ere.

Izan ere, horren ondorioz, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 51. artikuluan puntuaziorik altuena ematen zaie sei kide edo gehiagoko bizikidetz-unitateei. Hain zuzen ere, hizpide dugunera itzulita, hiru edo lau logelako etxebizitzaren kasuetan:

- *“...7 puntu emango zaizkie 6 kide edo gehiago dituzten bizikidetz-unitateei...”*

Gainera, herritar horien etxebizitza-beharrei arreta berezia eman behar zaiela agerian gelditu da Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean (2022-2036)¹, lehentasunezko jarraibide edo estrategien artean honako hau ezartzen baita:

- *“... familia ugarietari eta batzuei erantzuteko modua hobetzea.”*

3. Aurrean esan den guztia gorabehera, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2023ko otsailaren 14ko Aginduak, sustapeneko etxebizitzak adjudikatze prozedura onesten duenak², ebazpen-zatiko hirugarren zenbakiko e) letran ezartzen zuen bizikidetz-unitateek parte hartu ahal zutela, baldintza honekin:

- *“...Gehienez 6 kideko bizikidetz-unitatea izatea.”*

Hala ere, Arartekoak Etxebizitzaren web orriko informazioa aztertu du eta egiaztatu du sustapen horretan gutxienez 3 logelako 32 etxebizitza egon zirela. Izan ere, eskaera bazter uztea ebatzi arren, kexagilearen bizikidetz-unitateak 23 puntu lortu zituen baremazioan horrelako etxebizitza bat eskuratzeko.

4. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (hemendik aurrera GEEA) jurisprudentzia finkatuaren arabera, diskriminazioa da antzeko egoeran edo egoera berean dauden pertsonak modu berean ez tratatzea haien ezaugarri bereziengatik edo egoera pertsonalengatik. Halako tratamendua diskriminatzailetzat hartzen da, baldin eta ez badauka justifikazio objektibo eta zentzuzkoa, hau da, baldin eta auzian den bereizketaren helburua ez bada legitimoa edo erabilitako baliabideen eta lortu nahi den helburuaren artean ez badago zentzuzko proportzionaltasunik³.

¹ **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.** Etxebizitzaren aldeko itun soziala -. “Etxebizitza-eskubidearen benetako eraketa bizkortzeko konpromiso partekatua”.

² **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 47. zk., 2023ko martxoaren 8koa.

³ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** *Gaia: D.H. eta beste batzuk Txekiar Errepublikaren kontra*, 2007ko azaroaren 13koa. Demanda: 57325/00, 175. eta 196. paragrafoak. *Gaia:*



Agintaritzek badute nolabaiteko marjina erabakitzeko tratamendu desberdinak aplikatu behar dituzten edo ez eta egoeren arteko desberdintasunek hala jokatzeari justifikatzen duten edo ez⁴. Nolanahi ere, marjina hori inguruabarren, arloaren eta aurrekarien arabera aldatzen da⁵.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. artikulua ez du debekatu Batasuneko estatu batek zenbait talde desberdin tratatzea haien arteko desberdintasun faktikoak zuzentzeko. Izan ere, kasu batzuetan gerta liteke desberdintasun bat zuzentzeko tratamendu desberdina ez aplikatzeak xedapen hori haustea, justifikazio objektibo eta zentzuzkoa egon ezean⁶.

Hori dela eta, GEEAk hainbat aldiz adierazi du errespetatu egiten dituela Batasuneko estatuen onura publikoaren inguruko aginduak, baldin eta ebazpenek zentzuzko oinarriak badauzkate⁷.

Illo beretik, frogatu behar diren karga dela eta (Hitzarmenaren 14. artikulua), GEEAk honako hau ezarri du: demandatzaileak egiaztatzen badu tratamendu-desberdintasuna dagoela, Gobernuak frogatu behar du desberdintasun hori bidezkoa dela⁸.

5. Bada, Arartekoak egiaztatu du kexagilea eta beraren bizikidetzaren unitateko kideak etxebizitza babestuen eskatzaile modura inskribatuta daudela 2015etik. Beraz, aldi horretan etxebizitza-beharrizan berezia daukatela egiaztatu dute.

Hala ere, urtebete eskasean kexagileari hiru aldiz ukatu diote babes ofizialeko etxebizitza adjudikatzeko prozedura batean parte hartzea, eta horretarako arrazoi bakarra izan da bizikidetzaren unitatean sei kide baino gehiago daudela, hau da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak adjudikazio-prozeduraren oinarriak onesteko eman zuen aginduan finkatutakoak baino gehiago.

Azaldu den guztia kontuan edukita, Arartekoak esan zuen jakin nahi zuela zer arrazoi objektiborengatik ezarri zuen sail horrek sei kideetik beherako bizikidetzaren unitateek soilik har zezaketela parte prozeduratan.

Hala ere, Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak ez du ezer esan horretaz. Era berean, Arartekoaren ustez tamalgarria da ez Etxebizitza Sailburuordetzak ez Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ere beren iritziren berri ez ematea.

Molla Sali Greziaren kontra [Sala Handia], 2018ko abenduaren 19koa. Demanda: [2045/14](#), 135. paragrafoa.

⁴ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia [Sala Handia].** *Kasua: Thlimmenos Greziaren kontra*, 2000ko apirilaren 6koa. Demanda: [34369/97](#).

⁵ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia [Sala Handia].** *Kasua: Stummer Austriaren kontra*, 2011ko uztailaren 7koa. Demanda: [37452/02](#), 89. paragrafoa.

⁶ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** *Kasua: Stec eta beste batzuk Erresuma Batuen kontra*. Demanda: [65731/01](#).

⁷ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia [Sala Handia].** *Kasua: Stummer...aurrean aipatutako epaia*. 89. paragrafoa.

⁸ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** *Kasua: Timishev Errusiaren kontra*, 2005eko abenduaren 13koa. Demandak: [55762/00](#) eta [55974/00](#), 57. paragrafoa.



6. Azaldutakoaren ildotik, Arartekoak egiaztatu duenez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2023ko otsailaren 14an onetsitako aginduan ebazten da, inolako argudiorik eman gabe, sei kidetik gorako bizikidetza-unitateek ezin dutela parte hartu.

Geroz eta etxebizitza-sustapen gehiagotan sei kidetik gorako familia ugariak ezin dute parte hartu. Hala ere, aurrean adierazi den bezala, Arartekoak egiaztatu duenez, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoa ezartzen duen araudian gehienez zazpi puntu ematen zaizkie sei kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateei hiru edo lau logelako etxebizitza adjudikatzeko prozeduran.

Beraz, puntuaziorik altuena emanez, sailak berak onartzen du familia horiek oso zail dutela etxebizitza eskuratzea, eta lehentasuna ematen die babes publikoko etxebizitzak errentamenduan eskuratzeko.

Ostera, aztertu den kasuak erakusten duen bezala, ohikoa da erregelamenduz horretarako pentsatutako neurri honek ez sortzea bere helburua, adjudikazio-prozedurak arautzen dituzten oinarriek familia ugariak bazter uzten dituztelako.

Azaldutakoa dela eta, Arartekoaren iritziz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez du justifikatu zergatik ematen dien tratamendu desberdina sei kidetik gorako familia ugariari adjudikazio-prozeduretan parte hartzen utzi ez dienean.

Egiaztatu da babes publikoko etxebizitzaren sustapenean 3 logelako 32 etxebizitza zeudela gutxienez. Izan ere, horri esker familia ugari batzuek adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izan dute. Hala eta guztiz ere, familia ugari guztiek ez dute eduki aukera hori; beraz, tratamendu desberdina eman zaie etxebizitza eskuratzeko prozeduran.

Beraz, Arartekoaren ustez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2023ko otsailaren 14ko Aginduan ez da modu objektiboan justifikatzen tratamendu-desberdintasuna. Halaber, Sailak ez du azaldu neurri horren helburua legitimoa den ala ez, eta adjudikazio-prozeduran parte hartzen ez uzteko erabakia Sailak etxebizitza-politikekin lortu nahi duen helburuaren proportziozkoa den ere ez.

Esandako guztiagatik, Arartekoaren iritziz, familia horien etxebizitza duin eta egokirako eskubidea erabat mugatu da prozeduran parte hartzen utzi ez zaienean, tratamendu-desberdintasuna familia ugariako kideen kopuruaren arabera justifikatu gabe.

7. Pentsa liteke, nolana ere, bizikidetza-unitateko kideen kopurua mugatzeko arrazoia dela adjudikatzen diren etxebizitzetan behar baino pertsona gehiago ez bititzea.

Hori ez du berretsi Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, baina, hala balitz, ez litzateke bat etorriko Sailak berriaz azaldutako asmoarekin, hots, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 51. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, hiru logelako etxebizitzak eskuratzeko prozeduran sei kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateei puntuazio jakina ematearekin.

Gainera, ildo horretako argudio guztiek talka egingo lukete Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren asmoarekin, familia ugarien kasuan ez bailirateke biziko etxebizitzan behar baino pertsona gehiago. Hain zuzen ere, urriaren 10eko 147/2023 Dekretuak, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoak, honako hau ezartzen du 31.5 artikuluan:





- *“Familia ugari bat etxebizitza batean bizitzea ez da joko gehiegizko okupaziotzat”*

Are gehiago, Arartekoaren iritziz, sei kidetik gorako bizikidetza-unitateentzat egokiak diren etxebizitzaren sustapenik ez egotea Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean ezarritako asmoaren kontrakoa da zuzen-zuzenean, horretan finkatutako gidalerroetako bat baita azkarrago erantzutea babes publikoko etxebizitza behar duten familia ugari.

8. Oro har, Arartekoak positibotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitza duin eta egokia legez okupatu ahal izatea bermatzeko egindako ahalegina.

Hala ere, Arartekoak uste du ezinbestekoa dela sei kidetik gorako bizikidetza-unitateek gainerako eskatzaileen aukera berak edukitzea babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan parte hartzeko.

Hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua honako hau xedatzen du: *“Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea”.*

Bide beretik, EAEAREN 9. artikulua arabera, euskal botere publikoek hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute; gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurriak hartuko dituzte; politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute, eta bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki.

Hain zuzen ere, Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Legearen 20. artikulua honako hau xedatzen du:

- *“Las administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, garantizarán que las políticas de (...) vivienda respeten el derecho a la igualdad de trato y prevengan (...) cualquier forma de exclusión (...).*

Asimismo, tendrán en cuenta, en su elaboración, las necesidades de los grupos con mayores dificultades para el acceso y permanencia en la vivienda.”

Laburbilduta, egiaztatuta dago familia ugariak arazoak dauzkatela merkatu askeko etxebizitza eskuratzeko, eta ikusirik nola bizi den kexa aurkeztu duen familia, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak halako familiek etxebizitza duin eta egokia beste guztien aukera berekin eskuratzeko eragozten duten oztopoak kentzea, eta horretarako familiako kideen kopurua prozeduran parte hartzeko baldintza ez izatea bermatzen duten etxebizitza-politika publikoak ezarri behar dira.

9. Azkenik, Arartekoaren ustez asko hobetu daiteke Arabako Etxebizitzako lurralde-ordetzariak kexagilea adjudikazio-prozeduratik kanpo uzteko hartu duen erabakiaren aurka hark aurkeztutako gora jotzeko errekursoarekin Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egin duen izapidetza.



Arartekoa ez dago ados Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak errekurritutako egintza ez identifikatzearekin. Izan ere, espedientearen dagoen dokumentazioaren arabera (batez ere Zuzenean-Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak egindako frogagiriaren arabera, laburpenean berariaz aipatzen baita), kexagileak hauxe egin zuen: *"interpone recurso de alzada por exclusión de admitidos"*. Gainera, dokumentazio horretan etxebizitza-sustapenaren espedientearen zenbakia ageri da.

Horrenbestez, ongi egiaztatu da kexagileak gora jotzeko errekurtsoren formularioa erabili zuela, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2023ko maiatzaren 15eko ebazpenaren bigarren puntuari ezartzen den bezala.

Kexagileak labur-labur azaldu zuen bere egoera, baina etxebizitza bat adjudikatzeko eskatu zuen, nahiz eta jakin familiako kideen kopurua behar handiagoa zela.

Hala ere, kexagileak erantzun generikoa jaso zuen; bertan, ez zitzaion azaltzen zergatik baztertu zen bere eskaera, eta honela kalifikatu zen: *"Kontsulta, iradokizun edo erreklamazioaren erantzuna"*. Gainera, Etxebizitzako sailburuordeak ez zuen ezer adierazi adjudikazio-prozeduran aurrera egiteko aukerari buruz.

Auzitegi Gorenak (hemendik aurrera AG) kasazio-intereseko doktrina finkatu zuen 2019ko abenduaren 18ko 1853/2019 epaian⁹:

- *"...del derecho a una buena Administración pública derivan una serie de derechos de los ciudadanos con plasmación efectiva. No se trata, por tanto, de una mera fórmula vacía de contenido, sino que se impone a las Administraciones públicas de suerte que a dichos derechos sigue un correlativo elenco de deberes a estas exigibles, entre los que se encuentran, desde luego, el derecho a la tutela administrativa efectiva."*

Hain zuzen ere, administrazio onerako eskubidearen ondoriozko administrazio-babes eraginkorrerako eskubidea bermatu beharra dela eta, Auzitegi Gorenak honako hau adierazten du otsailaren 19ko 196/2019 epaian¹⁰:

- *"...el conjunto de derechos que de aquel principio derivan (audiencia, resolución en plazo, motivación, tratamiento eficaz y equitativo de los asuntos, buena fe) tiene - debe tener- plasmación efectiva y lleva aparejado, por ello, un correlativo elenco de deberes plenamente exigible por el ciudadano a los órganos públicos."*

Entre esos deberes está -y esto resulta indiscutible- el de dar respuesta motivada a las solicitudes que los ciudadanos formulen a la Administración y a que las consecuencias que se anuden a las actuaciones administrativas -especialmente cuando las mismas agraven la situación de los interesados o les imponga cargas, incluso si tienen la obligación de soportarlas- sean debidamente explicadas no solo por razones de pura cortesía, sino para que el sujeto pueda desplegar las acciones defensivas que el ordenamiento le ofrece."

⁹ **Auzitegi Gorenak.** 1853/2019 epaia, abenduaren 18koa. Bederatzigarren zuzenbide oinarria [ECLI:ES:TS:2019:4115]

¹⁰ **Auzitegi Gorenak.** 196/2019 epaia, otsailaren 19koa. Hirugarren zuzenbide-oinarria [ECLI:ES:TS:2020:3279]



Laburbilduta, Auzitegi Gorenaren apirilaren 14ko 505/2021 epaiaren arabera¹¹:

- *"...procede significar que el derecho al procedimiento administrativo debido, que es corolario del deber de buena administración, garantiza que las decisiones administrativas (...) se adopten de forma motivada y congruente con el iter procedimental, sin incurrir en desviación del procedimiento, en la medida que se requiere que no haya discordancias de carácter sustancial entre los datos fácticos relevantes, la fundamentación jurídica obrante en el expediente y el contenido de la decisión administrativa.*

Este deber constitucional de buena administración exige que las Administraciones Públicas respeten el deber de motivación y los principios de objetividad, transparencia y racionalidad, conforme a lo dispuesto en los artículos 35 y 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas."

Beraz, Arartekoaren iritziz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak gora jotzeko errekurtsua izapidetu behar zuen, formularioan bertan eta Zuzenean-Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak egindako frogagirian adierazten zen bezala. Horrela erantzun egokia emango zitzaion prozeduratik bazter uztearen inguruko auziari.

Hala ere, Arartekoak egiaztatu duenez, Sailak erantzun generikoa baino ez zuen eman, honelakotzat hartu baitzuen errekurtsua: *"Kontsulta, iradokizun edo erreklamazioaren erantzuna."*

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak gomendatzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak alda dezala Arabako Etxebizitzako lurralde-ordetzariaren erabakia, hots, kexagilearen eskaera babes publikoko etxebizitzak errentamenduan adjudikatzeko prozeduratik kanpo uztea.

Halaber, Arartekoak gomendatzen du Etxebizitza sailburuordeak erantzun egokia eman diezaiola kexagileak 2023ko maiatzaren 22an aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuari.

Nolanahi ere, Arartekoaren iritziz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bermatu behar luke sei kidetik gorako familia ugariak gainerako guztien aukera berekin parte hartu ahal izatea babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan.

¹¹ **Auzitegi Goren.** 505/2021 epaia, apirilaren 14koa. Laugarren zuzenbide-oinarria. [ECLI:ES:TS:2021:1387]